BIZITEGI ERAIKINA — BENGOETXEA 4

D MAILA



Egilea eta data: Justo de Ibaceta; 1865

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta 1925eko bi jasodura (lehenengoa mantsardatua eta bigarrena atzeraemana) dituena, estalkia eraberritzeko aurreko esku hartzeak (1872koa eta 1913koa) ordezten dituztenak. Fatxada entokatua goi oinetan, ezkerraldeko erdian leiho uztarri irtenak eta 2. eta 5. oinetako baoetan aluminiozko begiratokiak, 1925ean eraikitako zurezkoak ordezten dituztenak, dituena. 1935ean behe oineko eskuin erdiko baoetako bi lotu ziren. Oin horretako fatxada xaflatuta eta oso aldatuta dago.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin loturikoak barne.